

AKTA

Bilera eguna: 2012.04.19

Bilera tokia: Kultur Etxea

Bertaratuak: Olatz Olariaga, Amaia Urkola, Joanna Domingo, Cristina Salsamendi, M. Jose Garate, Iñaki Iturain, Alberto Agirreazaldegia, Garbiñe Manterola, Iñigo Gaiton, Imanol Manterola, Pello Orbañanos, Eneritz Odriozola.

Hasiera ordua: 19:00

Bukaera ordua: 20:30

Gai ordena

1. Agenda 21aren diagnosis eta ekintza plana lantzea (2004koa da, oriora.com webgunean ingurumenari dagokion atalean dokumentu guztiak ikus daitezke) TBaren helburu orokorrak finkatzen joateko oinarri gisa. Lurralde antolamendua.
 2. Mugikortasuna. Zer egin? Nola egin?
 3. Ehiza postuen egoera.
-

Bileraren garapena

1. Agenda 21a. Mugikortasuna

TBak egindako ekarpenak dokumentuan txertatuta geratu dira. Erantzun gabekoak edo dudak dokumentuan zehar dauden beste hainbat ducekin batera udalean eskatuko dira.

2. Ekintza konkretuak

2.1. Mugikortasuna

- Puntu beltzen bilduma egiteko hiru lan talde sortu dira:
 1. Oinezkoak: M. Jose, Garbiñe, Olatz eta Pello
 2. Bizikletak: Alberto, Iñaki eta Imanol
 3. Motordunak: Joanna, Cristina, Iñigo eta Eneritz
- Lehentasuna oinezkoek izan behar dute, gero bizikletaz doazenek eta azkenik motordunek. Aparkalekuen gaian izan ditugu tira-birak. Herrian aparkaleku handi eta erraz lokalizatuko direnak behar dira (horretarako ongi seinalizatu beharko dira). Batzuek diote egon badaudela horrelakoak (autopista azpikoa aipatzen da), beste batzuek diote, ordea aparkaleku horiek herri gunetik gertuago behar dutela. Honetaz aritu beharko genuke hurrengo bileran??
- Asteburuetakozko plazako oinezkoen eremua zabaltzeaz ekarpenak:
 1. Seinalizazio ona jarri behar da. Bai lurreko seinaleak, bai eta bestelakoak moldatu edota berriak jarri. Trafikoa ez da Goiko Kaletik bideratu behar, Txanka aldetik baizik.
 2. Bizikletaz doazentzat Abeslari kaletik irteera oso gaizki geratzen da. Aurrez aurre egiten baitute topo motordunekin, kontrako norantzan.

3. Ordutegiari dagokionean ere proposamenak izan dira. Larunbatean eguerditik aurrera ixteko, eta ez lehenago.

2.2. Ehiza postuak. Hector

Ez da Hector etorri ez gara honetaz aritu.

3. Etxekolanak.

TBaren 8. bilerarako etxekolanak

Zer	Nork
Orioko mugikortasuna: lantaldeen azterketa eta ondorioak. Elkarjartzea.	TB
Ehiza postuen egoera	Hector

Besterik gabe bilera bukatu dugu hurrengo bilerarako deialdia egin da, maiatzaren 23 rako (19tan k.etxen)